



2022KO JAIAK

BALORAZIO TXOSTENA

OSAKETARAKO DOKUMENTUA

Orain arteko hainbat
balorazioren bilketa
dokumentua.



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



KOKAPENA:

2022ko herriko jaien antolakuntza eta diseinurako ibilbide oso bat egin da ekainean hasi eta festak iritsi arte. Jaietako egitarauan laburbildu zen jarraitutako pausoen laburpena eta azalpena.

Urriaren 5etik 16ra bitarte ospatu ziren festak, eta ondorenean, baina artean ideiak fresko ditugula balorazioak jasotzeko lanei ekin diegu. Bi helburu nagusirekin: balorazio ahalik eta zabal eta anitzenak jasotzeko, eta batez ere, datozen jaietarako erreferentziak izateko, zer mantendu eta zer/nola hobetu.

Urriaren 25ean egin zen balorazio irekia, herriko taldeak, prozesuan inplikatu diren herritarrak eta gerturatu nahi zuen orori gonbitea egin ondoren. Egun berean Lardizabal Eskolako ikasleen ordezkartzarekin ere bildu ginen beraien balorazioa jasotzeko.

Hainbat taldek balorazio propioak ere egin ditu, hala nola, Ausa Gaztelu Guraso-Elkarteak edota Aske talde feministak. Udalak ere egin du berea.

Txosten honetan, orain artekoak jasota daude eta hemendik aurrerakoak ere bertara txertatuko dira. Datorren urtean eskuragarri izango dugu eta ziur gaude baliagarri izango zaigula.

Bost puntutan antolatu dugu dokumentua:

1. Ekintza zehatzen balorazioak
2. Gai orokorragoen balorazioak
3. Talde zehatzen balorazioak eranskin gisa erantsiak
4. Udalaren balorazioa
5. Ekarpinak irekian

Jarraian beraz, xehetasunak puntuz puntu:



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



1. EKINTZA ZEHATZEN BALORAZIOAK:

KALEJIRA TXARANGA, TXISTULARI ETA ERRALDOIEKIN



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

- Bezperan bilera egin genuen eta mantendu beharko litzateke.

ZER HOBETUKO ZENUKE?

- Ibilbidea ondo zehaztea
- Puntueltasuna errespetatzea

ARRAKASTA GOMETXAK:






ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



TXUPINAZOA



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

- Herriko txaranga berriro ateratzea.
- Herriko txaranga, txistulari, haur eta gaztetxoak... Aurreko egunean bilera egitea ere, egokia.
- Herriko txaranga!
- Herri txaranga

ZER HOBETUKO ZENUKE?

- Txupinazoa: jubilatuen abestia osatu, aldatu... buelta bat emango nioke.
- Txupinazoa motzagoa egingo nuke.
- Herritxo txikia, abestia eskolan irakatsi beharrekoa, guztiok abesteko.
- Goxokien euria: haur guztientzat izateko, balkoitik botatzeaz gain beheran txikienei eskura eman eta antolaketa hobetu

ARRAKASTA GOMETXAK:





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



MONDEJU JANA



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

- Banatzerakoan, aurtengo antolaketa egokiagoa izan da.
- Prestaketa eta jasoketa oso ondo egin da
- Mondeju kopurua eta kalitatea egokia

ZER HOBETUKO ZENUKE?

- Material guztia hobeto erreparatu aurrez
- Ardoa azkar gastatu zen
- Behar baino gehiago hartzen dute batzuek eta pintxo batzuk alferrik galtzen dira
- Plater berrerabilgarriak itzuli eta berriro banatzeko modua bilatu

ARRAKASTA GOMETXAK:





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



MUXUTRUK ERROMERIA



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

- Lehenengo egunerako talde aproposa

ZER HOBETUKO ZENUKE?

ARRAKASTA GOMETXAK:





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



JOKO MITOLOGIKOAK



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

- Oso polita
- Beharbada ez ziren oso arrakastatsuak izan, baina ondo dago umek ikusteko bestelakorik badagoela makinitatik aparte.

ZER HOBETUKO ZENUKE?

ARRAKASTA GOMETXAK:





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



BINGO HERRIKOIA



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

- Ideia polita adin ezberdinetako jendea biltzeko.
- Aurtengo sorpresa: xumea, herrikoa eta errepikatzekoa.

ZER HOBETUKO ZENUKE?

ARRAKASTA GOMETXAK:





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



PILOTA PARTIDAK



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

- Herriko pelotarik, jolastea!

ZER HOBETUKO ZENUKE?

- Partida gutxigo (oso luzea izan da)
- Partida asko: agian luze-xamar joan zen.
- Eguraldiak lagunduta herriko frontoian egitea.

ARRAKASTA GOMETXAK:





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



BARRAKAK 1€ EGUN OSOAN



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

- Barraken aukeraketa herriko haurrekin egin izana
- Prezioekin egin den lanketa
- Eremuaren antolaketa

ZER HOBETUKO ZENUKE?

- Barrakak gaztetxoei beida

ARRAKASTA GOMETXAK:





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



TOKA JOKOA ADIN GUZTIETARAKO



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

- Adin ezberdinetako jendea elkartzeko ekimen polita

ZER HOBETUKO ZENUKE?

- Haurrei parte hartzen uztea

ARRAKASTA GOMETXAK:





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



HAMAIKETAKOA JUBILATUENTZAT



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

ZER HOBETUKO ZENUKE?

- Orduategia hobeto antolatu

ARRAKASTA GOMETXAK:



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



POTTOKAK ETA ZEZENAK



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

- Ekintza oso polita haurrentzako

ZER HOBETUKO ZENUKE?

- Ganaduzaleek esan zuten 11:00ak garaizegi dela, eta ordu onena 12:00-12:30 dela.
- DBH-koek ere parte ahal izateko, larunbatean edo jartzea.

ARRAKASTA GOMETXAK:





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



HAURREN BAZKARIA



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

- Ekintza hau mantendu behar da

ZER HOBETUKO ZENUKE?

- Guraso falta nabarmendu da.
- Ume eta guraso gutxi bazkaltzen.
- Bazkarirako edari osasungarriagoak eskaintzea
- Orduategia/lekua zehaztea jubilatuen hamaiketakoarekin ez kointziditzeko

ARRAKASTA GOMETXAK:





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



KANTU KOLORE IKUSKIZUNA



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

ZER HOBETUKO ZENUKE?

- Haurren bazkaritik Kantu kolorera denbora gehiegi. Ondoren mozorrotzea azkarregi. Haur gutxi xamar bildu ziren, nire ustez haren eraginez.

ARRAKASTA GOMETXAK:





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



MOZORROTUEN PHOTOCALL-A



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

- Kuadrilla askok parte hartu zutela uste dut.

ZER HOBETUKO ZENUKE?

- Epaimahaia jarriko nuke, eta mozorro onenaren saria.

- Arratsaldeko poteoan musika pixka bat...

ARRAKASTA GOMETXAK:





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



GABENARA ETA KILIMAK TALDEEN KONTZERTUAK



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

- Kilimak, ederra. Giro bikaina.

ZER HOBETUKO ZENUKE?

- Gabenara erromeria nahiko makala.

ARRAKASTA GOMETXAK:



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



TIPI-TAPA IBILALDIA



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

ZER HOBETUKO ZENUKE?

ARRAKASTA GOMETXAK:



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



PANCHO BALBUENA MARIATXIA



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

- Berriz ekartzekoa, bazkal ondorenerako.

ZER HOBETUKO ZENUKE?

- Paella janaren ondoren jarriko nuke.

ARRAKASTA GOMETXAK:





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



PAELLA JANA



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

- Giro ezinhobea. Adin ezberdineko herritarrek elkarrekin.
- Larunbata osatzeko ekimen polita. Jarraipena izan dezan, nola bermatu?
- Ekitaldi ona eta partehartzailea.
- Jende asko eta giro ona.
- Larunbaterako primerakoa. Jende asko batu ginen eta giro paregabea sortu zen.

ZER HOBETUKO ZENUKE?

- Bazkal ondoreneko kantaldia laburregia izan. Azkarregi altxatu behar izan genuen.

ARRAKASTA GOMETXAK:





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



MOZORRO FESTA ETA HAURREN JAIALDIA



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

- Balorazio positiboa.

ZER HOBETUKO ZENUKE?

- Beste momenturen batean. Bazkaria erabat moztu zuen.
- Paella jana eta haurren bazkaria nahiko segidan.
- Hobetzeko geratu da partehartzaileei banatzeko goxoki-poltsen kalkulua.

ARRAKASTA GOMETXAK:





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



HERRIKO BATUKADA FEMINISTA



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

- Herriarentzat polita da herritarrak protagonista izatea.
- Herriko emakumeek kalea hartzea ederra izan zen.

ZER HOBETUKO ZENUKE?

- Zerbait martxosoagoa jarriko nuke.
- Elektrotxaranga bat jarriko nuke.

ARRAKASTA GOMETXAK:





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



ALARMA MOREA ETA DJ UZKULUZ



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

ZER HOBETUKO ZENUKE?

- DJ Uzkuluzen partez talde bat ekarriko nuke. Txoznetako musika zirudien.
- Artistei zor zaren errespetua eta muga nola ulertzen dira herrian?
Hausnarketaren beharra.

ARRAKASTA GOMETXAK:





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



HERRIKO TXISTULARIEN GOIZ DEIA



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

- Animo! Meritua baduzue.

ZER HOBETUKO ZENUKE?

ARRAKASTA GOMETXAK:





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



ANIZTASUN FESTA



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

- Oso polita. Ondo antolatuta eta herritarrok gehiago baloratu behar dugula.
- Oso polita eta giro ona

ZER HOBETUKO ZENUKE?

- Mahaien antolaketa aldatuko nuke.
- Hurrengo urterako musika hobeto antolatzea.
- Herriko aniztasuna festetako ekintza zehatz batera mugatu gabe, osotasunean lantzea

ARRAKASTA GOMETXAK:





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



IZTUETA DANTZA TALDEAREN EMANALDIA



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

- Oso polita izan zen.
- Saio oso ona eta ondo antolatuta.

ZER HOBETUKO ZENUKE?

ARRAKASTA GOMETXAK:





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



ZAPI JANZTEA BERTSO AFARIA



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

ZER HOBETUKO ZENUKE?

- Jende gehiagorentzat lekua izatea.
- Sarrera gutxi salmenta librean.
- Zaldibitar gutxi.

ARRAKASTA GOMETXAK:





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



SEGA SAIOA (ALMITZA)



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

- Kaletik behera kalejira egitea

ZER HOBETUKO ZENUKE?

- Herriko jende gehiago nola hurbildu segara?

ARRAKASTA GOMETXAK:



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



KUADRILLEN IRTEERA TXARANGAREKIN



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

- Eguerdirako zein arratsalderako oso aproposa.

ZER HOBETUKO ZENUKE?

ARRAKASTA GOMETXAK:





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



KUADRILLEN EGUNEKO BAZKARIA



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

- Antolakuntza, giroa, dena primerakoa.
- Menua eta zerbitzua oso ona.
- Karpa mantentzea.
- Karparekin inoiz baino hobeto.
- Menua eta prezioa.
- Kinta bat antolakuntzan egotea

ZER HOBETUKO ZENUKE?

- Arratsaldeko kalejirari denbora gehiago eman.
- Garbiketa, jasotze garaian, eskapada!
- Mahaien antolaketarako: 13:00etan kuadrila bakoitzetik bat antolakuntzara bertaratzea zenbat lagun diren zehaztuz, 14:30erako lekuak zehaztuta izateko.

ARRAKASTA GOMETXAK:





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



KUADRILLEN ARTEKO JOKOAK



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

- Kuadrillen arteko jolasak egiten jarraitzea

ZER HOBETUKO ZENUKE?

- Luze xamarrak.
- Oso luzeak, eta ahal dela denentzat aukera izatea.
- Jolasak luze joan ziren.
- Luzeegi
- Luze jo zuten.

ARRAKASTA GOMETXAK:





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



TRIKIDANTZ



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

- Kuadrila egunean Trikidantz mantentzearen alde.
- Oso kontzertu ona.
- Oso ona. Giro bikaina sortu zuten.

ZER HOBETUKO ZENUKE?

ARRAKASTA GOMETXAK:





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



GOIZ-KALEJIRA LASKO TXARANGAREKIN



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

ZER HOBETUKO ZENUKE?

- Tabernak irekita mantentzea.
- 6:00etako txaranga kentzea.
- Hau herriko talde batek antolatu beharko luke.
- Tabernak itxita, leku berean denbora asko.
- Txoznak irikitzea!

ARRAKASTA GOMETXAK:



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



TXOKOLATE JANA /GAUPASEROEN ARGAZKIA



ZER MANTENDUKO ZENUKE?

ZER HOBETUKO ZENUKE?

- Txokolate beroa ez da oso ondo sartzen. Agian beste zer bait? Ez dakigu jendeak nola erantzungo duen.
- Txokolatearen orde, xolomoa eta hirugiharra.

ARRAKASTA GOMETXAK:



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



2. GAI OROKORRAGOEN BALORAZIOAK

ANIZTASUNA: kultur aniztasuna, parte hartzaileen aniztasuna, festa integratzaileak

<u>ZER MANTENDUKO ZENUKE?</u>	<u>ZER ALDATUKO / HOBETUKO ZENUKE?</u>
<ul style="list-style-type: none">- Aniztasun festa oso ondo baloratu da- Ekintzetan parte hartzaile profil anitzak egotea lortu da, baita festen antolakuntzan ere.	<ul style="list-style-type: none">- Aniztasun festan aurrekontu murrizta plater tradizionalak prestatzeko.- Kultur aniztasuna ekintza bat baino zabalagoa behar luke eta horrek aurre-lanketa eta festen ikuspegian aldaketa eskatzen du.

FESTA GUNEAREN ANTOLAKETA: plazako antolaketa berria, karpa, barraka eremua, trafiko mozketak, komunak...

<u>ZER MANTENDUKO ZENUKE?</u>	<u>ZER ALDATUKO / HOBETUKO ZENUKE?</u>
<ul style="list-style-type: none">- Karpa ondo baloratu da.- Barraka eremua ere ondo baloratu da.- Trafikoa ahalik eta gehien moztea egokia.	<ul style="list-style-type: none">- Txosnen kokapenak frontoia ezkutuan geratzea zekarren, ez zelarik egoki geratzen pottokentzako edo pilota partidentzako.- Komunak eta txurreria elkarren oso ondoan.





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



PARTE-HARTZEA: kopuru aldetik, kalitate aldetik, herrikoia...

<u>ZER MANTENDUKO ZENUKE?</u>	<u>ZER ALDATUKO / HOBETUKO ZENUKE?</u>
<ul style="list-style-type: none">- Inoiz baina parte hartzaileagoak.- Herrikoiak, herritar askok parte hartu du.- Parte hartzeko inoiz baino aukera hobeak.	<ul style="list-style-type: none">- Berdin jarraitzea. Ahalik eta jende gehienera iristea.

BIZIKIDETZA: elkarren errespetua, inguruarekiko eta objektuekiko errespetua, zarata...

<u>ZER MANTENDUKO ZENUKE?</u>	<u>ZER ALDATUKO / HOBETUKO ZENUKE?</u>
<ul style="list-style-type: none">- Festak antolatzeko moduak, parte hartze saioen bitartez, geroko eztabaidak saihestea lortu du.	<ul style="list-style-type: none">- Basoen erabilera, kontzientziaioa landu.- Txikizioak, erasoak, borrokak... egon dira- Herrian lanketa handia dago egiteko, esparru askotan.- Zarata gustatzen ez zaionarentzat alternatibak sortu? Gune lasai bat bermatu?- Pankarta kopuruak eta hauen kokapenek eragin dute tira-biraren bat eta aurrez adostutako irizpideak hautsi dira.



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



BERDINTASUNA: genero aldetik oreka, protokolo feminista...

<u>ZER MANTENDUKO ZENUKE?</u>	<u>ZER ALDATUKO / HOBETUKO ZENUKE?</u>
<ul style="list-style-type: none">- Mezuak, kuñak... gustatu zaizkio jendeari.- Askek eta udalak elkarlanena egindako protokoloa baliagarria izan da- 24 orduko mugikor zerbitzuan ez da deirik egon- Tabernari, txosnak, bolondresak erakutsitako konplizitatea eta egindako lana	<ul style="list-style-type: none">- Beste gai batzuekin ere beharko litzateke. Adibidez, oso mozkortuta badago norbait, nola egin? Elkar zaintzeko prozedurak.- Baboso-eskuluzeak izan dira festetan, nahikoa da!- Errespetua eta mugak → bai genero ikuspegitik eta baita bestela ere (gurasoek haurrei, adibidez)- Ez, ezetz da!, neska eta emakumeen mugak errespetatu, aurreiritzi edo azalpen eskerik gabe.- Txikizioak-gizon "indar" erakustaldiak, ez dute lekurik hemen.

AURREKONTUA: festetara bideratutako diru kopurua, ekintzen arteko oreka, eguneko-gaueko gastuak...

<u>ZER MANTENDUKO ZENUKE?</u>	<u>ZER ALDATUKO / HOBETUKO ZENUKE?</u>
<ul style="list-style-type: none">- Herriko musikari, pilotariak... parte hartzea.- Karpa handia plazan- Aurrekontua nahiko orekatua iruditu zaigu, egunari eta gauari dagokionez.	



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



JASANGARRITASUNA: garbitasuna, birziklapena, hondakin gutxiago sortzea...

<u>ZER MANTENDUKO ZENUKE?</u>	<u>ZER ALDATUKO / HOBETUKO ZENUKE?</u>
<ul style="list-style-type: none">- Baso berrerabilgarriak jartzea, oso ondo.- Koadrila bazkariko garbiketa, ondo.	<ul style="list-style-type: none">- Baso gehiegi zeuden botata.- Garbiketa hobetu behar edalontzi berrerabilgarriak ahalik eta gehien errekupeatzeko.

HIZKUNTZA FESTETAN: ekintzak, kontzertuak, musika...

<u>ZER MANTENDUKO ZENUKE?</u>	<u>ZER ALDATUKO / HOBETUKO ZENUKE?</u>
	<ul style="list-style-type: none">- Gertuagoko musika jartzea, belaunaldi ezberdinen gustagarri. Tabernetan nahiko giro arrotza sumatu da orokorrean.- Karpa eta txosnak elkarrengandik gertuago jarri.- Musika ezberdin gehiago.

ANTOLAKETA: festetako ekintzetan arduren banaketak, lan banaketak, elkarlana

<u>ZER MANTENDUKO ZENUKE?</u>	<u>ZER ALDATUKO / HOBETUKO ZENUKE?</u>
<ul style="list-style-type: none">- Festa aurreko bilera zabal eta parte hartzaileak positibotzat jo dira.	<ul style="list-style-type: none">- Herritarren parte hartze falta festa egunetako lanetan. Azkenean ekintza guztietan betiko hiru-lau lagun jardun dira.- Lan banaketarako moduren bat landu.



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



FESTEN EGUTEGIA: egun kopurua, egun izendatuen banaketa (mozorro eguna, santa fe eta bezpera, kuadrila eguna)...

<u>ZER MANTENDUKO ZENUKE?</u>	<u>ZER ALDATUKO / HOBETUKO ZENUKE?</u>
	<ul style="list-style-type: none">- Santa Fe izena kendu eta adibidez Zaldibiko festak, edo urriko aurreneko asteburua izena erabili.- Festa egutegia FINKOA IZATEA URTERO: urtero urriko lehen ostegunean hasi festak eta igandera arte, eta hurrengo asteburuko larunbatean Kuadrila eguna. Santu eguna noiz tokatzen den kontuan hartu gabe. Etxe askotan antolakuntza erraztuko luke horrek eta bestelako antolakuntza lanak ere bai.- Santa Fe eguna oso eskas geratu da, nolabait bete beharra izan bagenu bezala.- Mozorro eguna ostiralean egoki.- Gazte Eguna: antolaketa prozesuaren amaieran eta festa egitarautik kanpo antolatu zen, antolatzaileek prozesuan parte hartu ondoren hala erabakita.



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



3. TALDE ZEHATZEN BALORAZIOAK ERANSKIN GISA ERANTSIAK

Txostenaren puntu honetan bilduko ditugu herriko talde-eragileen balorazio propioak datorren urtean eskuragarri izateko. Ekarpen hauek 1 eta 2 puntuetan ere txertatuta daude.

AUSA-GAZTELU GURASO ELKARTEA:

-Jai batzordea:

Festetako balorazioa:

Aurten ere ospatu ditugu Santa Fe-ak eta orokorrean oso ondo joan dira. Hala ere zenbait puntu aztertu eta hobetzea komeni zaigu:

*Desfilea: ibilbidea alde aurretik garbi zehaztea komeni da.

*Udaletxeko balkoitik haurrei botatzen zaizkien goxoki eta jostailu txikiak haur guztientzako dira. Eta ez ausartenentzako bakarrik. Horretarako goxoak balkoitik ez ezik txikienei eskura ematea komentatu da. Eta zintarekin istea gurasoak eremutik kanpo geratzeko.

*Playback-a: Balorazioa positiboa. Hobetzeko gelditu da kalkulu zehatzagoak egitea haurrei ematen zaien goxoki poltsen kopurua.

*Haurren Bazkaria: Balorazioa positiboa.

Hobetzeko puntu bat ematen zaizkien edariak(koka kola, kas,...) beste edari osasungarri batzuegatik aldatu edo eskeintzea(zumoak,...)

Datorren urterako zehaztea ordutegia edo lekua jubilatuen hamaiketako/bazkaria-ekin ez koinziditzeko.

ASKE TALDE FEMINISTA

2022ko Zaldibiko Festak

Zaldibiko Talde Feminista

ASKE

Udalarekin elkarlanean egindako PROTOKOLOA euskarri baliagarria izan da.

Festa egunetan 24 ordutan aktibo izan dugun telefonoan, ez dugu eraso matxisten inguruko deirik jaso

Herriko tabernari, txoznetako kide eta gainerako boluntarioei ESKER ONAK eman nahi dizkiegu egindako lanagatik eta erakutsitako konplizitateagatik.

TXIKIZIOAK HERRIAN: Aitzakiak aitzakia, gizon batzuek beraien "indar" erakustaldi lotsagarria behin eta berriz errepikatzen dute gauzak apurtuz. Ez dugu horrelako eredurik nahi!

Alkoholaren eta drogen babespean, gizon BABOSO ETA ESKULUZEAK presentzia izan dute jaietan. Nahikoa da! Geratu zaitezte etxean!

Mutil lagunari, koadrilako kideari edo herritarrari muga jartzea eta jarrera ez egokia daukala adieraztea, ezezagun bati esatea baina zailagoa izan ohi da. Ez, ezetz da! Aurreiritziak egin gabe eta azalpenik eskatu gabe, neska eta emakume guztion mugak onartu!

ELKAR ZAINITZA ETA ERRESPETUA ARDATZ...JAIK, KALEAK, GAUAK, OHOLTZA, LIGOTEQ SANOA ETA GOZAMENA HERRITAR GUZTIONAK IZATEKO LANEAN JARRAITUKO DUGU. GORA BORROKA FEMINISTA!



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



4. UDALAREN BALORAZIOA

Aurtengo jaietan lanketa sakona egin da hauek hasi aurreko, bitarteko eta ondorengo lanerako, eta fase guztiak baloratu nahi genituzke garrantzitsua baita.

Prestaketari dagokionez, balorazio oso positiboa egiten dugu, bai barne mailan metodologia berri bat martxan jarri izanagatik, eta bai irekian uste dugulako aldaketa horrek bai kuantitatiboki eta baita kualitatiboki ere emaitza eta erantzun ona izan duela.

Legegintzaldiko erronketako bat zen jai ereduari buruzko hausnarketa abiaraztea, eta aurten egindako lanketarekin urrats handi bat eman dela baloratzen dugu. Egitarauko ekintzez harago, gure balioez, festetan bultzatu edo saihestu nahi ditugun jarrerez, parte hartzaile profil anitzez... hitz egin dugu eta lorpen garrantzitsua da hori guretzat.

Prestaketa mailan, ordea, bada hobetzekorik ere. Batetik, barne mailan udal informazio eta ardura banaketa hobetu beharko litzatekeela sumatu dugu, Kultura eta Zerbitzuen arloak hobeto koordinatuz. Bestetik, festetako egitaraua aurrera ateratzeko hainbat lan egin beharra dagoenez, auzolan ariketa bat da eta ikusi dugu herritar asko egon daitezkeela arduraren bat hartzeko prest. Honi lotuta, hurrengo urterako proposamen bat lantzea beharrezko ikusten dugu, lana eta festa orekatuz, eta lanak gutxi batzuen gain ez daitezen erori.

Festetako egunei dagokionez eta eguraldia orokorrean lagun zela, balorazioa baikorra da. Egitarauko ekintza guztiek espero zen partaidetza izan dute, askok handiagoa ere bai, eta gora-behera txikiren bat tarteko, egitarau osoa aurreikusi bezala garatu da.

Aipagarria iruditzen zaigu herriko taldeek festetako egitarauari egin dioten ekarpena batetik; eta bestetik, giro herrikoia sustatuz berrikuntza izan diren ekintza batzuek (bingoa, photocallak, paella-jana...) izan duten arrakasta, inork gutxik espero zuena.

Azpimarratu nahiko genuke, era berean, jai eremuaren antolaketa berriarekin asmatu egin dugula. Aterperako aukera izateak eta plaza erdiko kokapenak ekintzei lagundu egin dielakoan gaude. Antolaketa lanak ere errazago egin direla antzeman dugu, eta beraz, xehetasunen bat gora-behera, datozen urteetarako errepikatze modukotzat jotzen dugu.

Izan da, ordea, hobetu beharrekorik eta kezka eragin digunik ere, eta 1. eta 2. puntuetan sartuta daude gure oharrak datozen urteetarako erreferentzia lagungarri izateko.

Amaitzeko, azpimarratu nahi genuke balorazio faseari ere ematen ari zaion erantzuna: bai saio irekian parte hartu zutenei, bai eskolako ikasleei zein herriko taldeei zer mantendu eta zer hobetu iritziak helaraztea eskertzen diegu. Oraindik ere irekita dagoen balorazio fasean ekarpen guztiak izango dira baliagarri. Aurtengoak ederrak izan badira, datozenak ederragoak izan daitezten!



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



5. EKARPENAK IREKIAN

Dokumentu hau bizirik dagoen zerbait da, ekarpena egin nahi duen orori irekia. Zentzu honetan, zaldibia.eus atariaren bidez edota Karreane Kultur Etxera helarazitako iritzi eta proposamenak bertan biltzen joango gara.

Zaldibian, 2022ko azaroaren 10ean